

## **‘ARABAKO ERRIOXAKO ARDOAREN IBILBIDEA’, ATRAE SARIEN HIRUGARREN EDIZIOAREN IRABAZLEA**

- **Nazio zein nazioarte mailan jomuga sustatzeko egiten duen lan paregabea, eta lankidetzak publiko-pribatua eta egiten duen asoziazionismo arrakastatsua nabarmendu ditu epaimahaiak**
- **2020ko aipamen berezia ‘Ekobideak’ kooperatibari, azken urteotako proiektu berritzaileenetako bati, eman zaio.**

**Bilbon, 2020ko abenduaren 16an.-** COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz, ATRAE Sarien hirugarren edizioak ez du aurreko edizioetakoa bezalako sari banaketa ekitaldirik izan. Hala ere, dagoeneko badu irabazlea: Arabako Errioxako ardoaren Ibilbidea. Nazio zein nazioarte mailan jomuga sustatzeko egiten duen lan paregabea izan da balantza bere aldera eramateko pisuzko arrazoietakoa bat. 2020ko aipamen bereziari dagokionez, geoturismoa lantzen duen Ekobideak kooperatiba txikiak, “azken urteotako proiektu berritzaileenetako batek”, jaso du. Bi hautagaiak jardunbide egokien adibide ere badira digitalizazioari eta produktuen online merkaturatzeari dagokienez.

Hala ere, aurtengo edizioa orain arteko gogorrena izan da, oso garai zailak baitira Euskadiko turismo-sektorearentzat. Lorea Uranga ATRAEko presidentek horri buruzko mezua helarazi nahi izan du: “aurten guztiok merezi dugu sari hau neurri batean. Oso egoera zailak jasaten ari gara, baina badakit aurrera egingo dugula. Gustura emango genituzke sari hauek ospakizun egun batean, hori delako aurtengo irabazleek merezi dutena, baina ez da posible izan. Espero dezagun aurtengo sariak sektorearentzako motibazio izatea eta datorren urtean beste gai batzuei buruz hitz egiten aritzea”.

Sari horien helburua, oinarriek jasotzen dutenez, “Euskadi turismoren ikuspegitik garatzeko ekarpen, oihartzun, izen eta eragin esanguratsua egin edo bultzatu duen duen enpresa-jarduera, ibilbide profesionala edo/eta edozein kanpaina edo ekimen espezifiko (ekitaldia, proiektua...) jendaurrean aintzatestea” da. Bada, hautagaitzak jaso ondoren, epaimahaiak Arabako Errioxako ardoaren ibilbideari saria ematea eta Ekobideei aintzatespen berezia egitea erabaki du.

### III. ATRAE Saria:

Epaimahaiak Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbideak egiten duen lankidetzak publiko-privatua eta asoziazionismo arrakastatsua saritu nahi izan ditu, eta baita nazio eta nazioarte mailan jomuga sustatzeko egiten duen lan paregabea ere, bere ibilbidean zehar egin dituen askotariko ekitaldiak ahaztu barik. Era berean, jomugaren eta elkartekideen lehiakortasuna hobetzeko egiten dituen ekimen ugariak nabarmendu dira, eta baita hainbat erakunderekin egiten dituen lankidetzak ere, ATRAE elkartearekin, besteak beste. Epaimahaiak “sariak bi elkarleen arteko batasuna indartzeko balio izatea eta elkarlanerako bide berriak lantzen jarraitzea” espero du.

María de Simón Baranda, Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbideko presidentea: “Sari hau oso pozgarria da guretzat, une honetan, batez ere. Harro egoteko arrazoia da, gure ustez, Ibilbidetik hasieratik egiten ari garen lana aintzatesten du, eta gure ahaleginean jarraitzera animatzen gaitu”. Eta hau gehitu du: “hilabete gogorak ari dira izaten guztiontzat. Osasuna guztiaren gainetik dago, baina, hori alde batera utzita, uste dut alderik txarrena egoera hau sortzen ari den ziurgabetasuna dela, inork ez baitigu nola aurre egin erakutsi. Hala ere, nire ustez, Arabako Errioxak zoritxarrari aurre egiten jakingo du. Gure eskualdea sendoa, aktiboa, enpatikoa da, eta elkarlanean aritzen da, hasieratik jakin du Arabako Errioxa jomuga seguru bihurtzeko bizi izan ditugun aldaketa guztietara egokitzen. Gure bazkide publiko eta pribatu guztiei zabaldu nahi diet aintzatespen hau, eta zorionak eman nahi dizkiet euren inplikazioarengatik. Zorionak!”.

### 2020ko aipamen berezia:

Ekobideak kooperatibak jaso du 2020ko aipamen berezia, geologia gizartera hurbiltzen duen eta ondare geologikoari eta geodibertsitateari balioa ematen dion azken urteotako proiektu berritzaileenetako bat delako. “Turismo iraunkorraren aldeko apustua” egin du, eta epaimahaiak “urte osoan zehar esperientziak eskainiz, urtarokotasunari aurre egiteko egin duen lana” goraipatu du. Gainera, Ekobideak kooperatibak Euskadiko hainbat jomuga turistikorekin eta hainbat euskal enpresa turistikorekin batera egiten du lan, beren produktuari balio erantsia emanez. Bere eskaintzaren barruan, itsasontzi bidezko ibilbide geologikoak nabarmendu behar dira.

Barbara Casas Ekobideak-eko zuzendaria: “Aintzatespen honek sekulako bultzada ematen digu. Egia esan, oraindik ez dut sinesten! Ilusio handia egin digu. Urtea amaitzeko modurik onena da! Oso kooperatiba txikia gara, baina gogo biziz egiten dugu lan. Eskerrak eman nahi dizkiet martxan jarri ginenetik gudan konfiantza izan

du ten guztiei. Urtea lan askorekin hasi genuen, baina gero konfinamenduko hilabete zailak etorri ziren. Horren ondoren, mundu guztiak bezala, geure burua berriro asmatu behar izan genuen. Eta lortu dugula uste dut, udako denboraldia oso ona izan delako guretzat. Maiatzetik urrira ez gara gelditu, eta eskertzekoa da, sektoreko lankideak oso gaizki pasatzen ari direla ikusita”.

**Informazio gehiago:**

Peru Salaburu

[salaburu@biokcomunicacion.com](mailto:salaburu@biokcomunicacion.com)

639 902 771